

Con fecha 2 de diciembre de 2002 se firmó el Convenio de Cooperación Educativa entre el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro y la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de San Sebastián, cuyo texto se adjunta para conocimiento y recordatorio de todos los Colegiados y del que se recomienda su atenta lectura.

Entre las modificaciones que se incorporaron señalamos:

**Cláusula primera. Organización de las prácticas.**

**Punto 6.** La Sociedad o Estudio de Arquitectura inscrita en el COAVN será responsable, en cada convenio particular, de que los alumnos se encuentren dentro del listado anteriormente citado. Así mismo, el propio Estudio de Arquitectura remitirá simultáneamente dicho Convenio Particular a la Dirección de la ETS de Arquitectura de San Sebastián y una copia del mismo al COAVN, antes de un plazo de 15 días de la fecha de comienzo del Convenio para que se proceda a la firma del mismo por parte del Responsable del Programa de Prácticas (RPP) de la ETS de Arquitectura de San Sebastián.

En caso de que no se cumpliera el plazo arriba reflejado no se procederá a la firma de dicho convenio.

El Convenio particular se remitirá a la ETS de Arquitectura de San Sebastián y al COAVN junto con el justificante de pago del Seguro Complementario que se especifica en la cláusula cuarta y el justificante de ingreso de la cantidad estipulada en el punto 11 de la primera cláusula.

**Punto 11.** Establece la obligatoriedad de abonar 30 € por cada convenio particular, con objeto de subvenir a gastos de desplazamientos de los tutores designados por la ETS de Arquitectura de San Sebastián y en concepto de gastos de gestión, que se ingresarán en la cuenta N° 2101 0381 0800 0330 0233 perteneciente al Vicerrectorado del Campus de Gipuzkoa.

**Nota:** En este punto del convenio con la EHU-UPV dónde figura el Vicerrectorado del Campus de Gipuzkoa como titular de la cuenta donde ingresar 30 €, debe figurar la Escuela de Arquitectura de Donostia-San Sebastián.

**Cláusula cuarta. Seguros contra accidentes y responsabilidad civil.**

a) La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea tiene concertada una póliza de responsabilidad civil para cubrir los daños que los alumnos puedan ocasionar por la realización de las prácticas.

**El Seguro de Accidentes y Daños a Cosas y a Terceros. Puede contratarse:**

- Suscribiendo la Póliza Colectiva de Accidentes “CUM-LAUDE”, que la UPV tiene concertada a través de “Aon Gil y Carvajal” (de la que adjuntamos más información), con las siguientes garantías:

Muerte por accidente	9.015,18 €
Invalidez Permanente por accidente	15.025,30 €

Con un coste de 10,52 € por alumno contratado y año, que se ingresará en cualquiera de las siguientes cuentas:

Bilbao – BBK - 2095 0551 62 5060048832.

San Sebastián – KUTXA – 2101 0014 22 0010652303.

Vitoria – Caja Vital – 2097 0111 43 0008155921.

- A través de este Decanato, con “GES Seguros”, con las siguientes garantías:

Muerte por accidente	30.050,61 €
Invalidez Permanente por accidente	30.050,61 €
Daños a Cosas y a Terceros	30.050,61 €

Con un coste de 20 € por alumno y mes contratado, que se ingresará en Caja de Arquitectos, cuenta n° 3183 4800 5100 0000 1361.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Herriko  
Arkitektoen  
Elkargo Ofiziala



Colegio Oficial de  
Arquitectos  
Vasco-Navarro

**LANKIDETZARAKO HITZARMEN-MARKOA, UPV/EHU-KO ARKITEKTURAKO GOI ESKOLA TEKNIKOAK ETA EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAK (EHAEO-K) SINATUKO DUTENA, BORONDATEZKO PRAKTIKAK EGITEKO**

**CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN A SUSCRIBIR ENTRE LA ESCUELA TÉCNICA SUPERIOR DE ARQUITECTURA DE LA UPV/EHU Y EL COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO (COAVN) PARA LA REALIZACIÓN DE PRÁCTICAS VOLUNTARIAS.**

Donostian, 2002ko abenduaren 2an

En San Sebastián, a 2 de Diciembre de 2002

### **BILDUTAKOAK**

Alde batetik, Francisco Javier Ibarondo M. Iturmendi jauna, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian duen Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko zuzendari gisa.

Bestetik, M<sup>a</sup> Victoria Morrás Zuazo andrea, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko dekanolehendakari gisa.

Alde biek hitzarmen hau sinatzeko ahalmen legala aitortzen diete elkarri eta

### **ADIERAZI DUTE**

Estatutuetako 34. artikulua araberan, Gobernu Batzarrak baimen dezake ikasketen zati bat beste erakundeetan ematea. Baimen hori ikastegiekin eta, bere kasuan, sailek proposatuta emango du, hitzarmen bidez, eta ikasketen izaerak berak hala eskatzen duelako.

Hezkuntzaren inguruko lankidetzaren programen helburua nagusia da unibertsitateko ikasleei heziketa osoa ematea, teoria eta praktika konbinatuz. Hala dio ekainaren 19ko 1497/1981 Errege Dekretuak (arau hau irailaren 9ko 1845/1994 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen). Eta horretarako, heziketa-programa paraleloak antolatuko dira unibertsitatean eta enpresetan/erakundetan, teoria eta praktika konbinatuz.

### **REUNIDOS**

De una parte D. Francisco Javier Ibarondo M. Iturmendi, en su condición de Director de la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de San Sebastián de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

De otra Dña. M<sup>a</sup> Victoria Morrás Zuazo en su condición de Decana-Presidenta del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro.

Reconociéndose mutuamente la capacidad legal necesaria para suscribir el presente convenio

### **MANIFIESTAN**

De acuerdo con el Artículo 34 de los Estatutos de la UPV/EHU, la Junta de Gobierno, a propuesta de los centros docentes y, en su caso, de los Departamentos, podrá autorizar mediante convenio y por razones de la naturaleza de la docencia, que la enseñanza sea impartida parcialmente en otras instituciones.

Los programas de cooperación educativa según el Real Decreto 1497/1981 del 19 de Junio, modificado por el Real Decreto 1845/1994 de 9 de Septiembre tienen como objetivo fundamental conseguir una formación integral del alumnado universitario a través de un programa educativo paralelo en la universidad y la empresa/institución combinando teoría y práctica.



Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen helburuak, besteak beste, dira profesionalak trebatzea eta prestatzea, hezkuntzaren goi-mailan, inguruko gizarteak eskatzen duena kontuan hartuz. Bestalde, Arkitektoen Elkargo Ofizialeko Estatutuetak 7. artikulua eta bertako Kontseilu Gorenak elkargoen eginkizun moduan aipatzen dituzte arkitekturaren inguruko irakaskuntza eta ikerkuntza hobetzeko elkarlana, titulatu berriei praktikak errazteko ikastaroak antolatzea eta formazio, kultura, hiritarrentzako aurreikuspen, eta antzeko izaera duten erakunde edo entitateekin elkarlanean aritzea.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Arkitekturako Goi Eskola Teknikoak eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak hitzarmen honen bidez nahi dute ikasleei arlo profesionalarekin lehen harremana eskaintzea, ikasten ari diren bitartean. Horretarako, arkitektoen antolakuntza profesionaletatik borondatezko praktikak prestatuko dira UPV/EHUko ikasleentzat, eta praktika horiek arkitekto profesionalen bulego edo elkarte profesionaletan egingo dituzte. Hala, ikasleek benetako egoeran eta giroan ezagutu ahal izango dituzte arkitektura profesionalak eskatzen dituen lanak, eta horrek dituen arazoak eta metodologiak.

Halaber, nahi dute arkitekturako ikasleei etorkizunean lana aurkitzen laguntzea. Horretarako, abilezia praktikoa mota guztiak erakutsiko dizkiete, eta baita ere lagunduko die dituzten hainbat eta hainbat irteera profesionalek eskaini diezazkieten ikuspegiak eta aukerak hobeto ezagutzen. Eta hori guztia profesionalki lanean ahalik eta azkarren has daitezten.

Azkenik, UPV/EHUK zuzen-zuzenean jaso ahal izango du informazioa, monitorizazio eta jarraipenaren bidez. Informazio horri esker etenik gabe egokitu ahal izango ditu Arkitekturako karrerako irakasgaiak une bakoitzean identifika daitezkeen eskaera, gabezi edo beharretara.

La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea tiene entre sus fines la formación y preparación, en el nivel superior de la enseñanza, de profesionales en consonancia con las demandas del entorno social. Por su parte el Artículo 7 de los Estatutos Generales de los Colegios Oficiales de Arquitectos y su Consejo Superior, enumera como funciones de los Colegios la cooperación al mejoramiento de la enseñanza e investigación de la Arquitectura, la organización de cursos para facilitar prácticas profesionales de nuevos titulados y la colaboración con instituciones o entidades de carácter formativo, cultural, cívico de previsión y otras análogas.

La Escuela Técnica Superior de Arquitectura de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea y el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro, a través del presente Convenio pretenden por un lado, proporcionar al alumno/a desde la organización profesional de los arquitectos, a través de las prácticas voluntarias del alumnado de la UPV/EHU en sus despachos ó sociedades profesionales, un primer contacto con el mundo profesional en la propia etapa de formación docente de las futuras promociones de profesionales. Así, el alumno/a podrá familiarizarse con las tareas, problemáticas y metodologías de trabajo propias de la profesión de Arquitecto, en situaciones y entornos reales.

Por otro lado, pretenden facilitar la futura empleabilidad, dotando a los estudiantes de arquitectura de habilidades prácticas de todo tipo, así como de un mejor conocimiento de las perspectivas y opciones de las múltiples salidas profesionales, con el fin de reducir al mínimo posible los tiempos de su futura incorporación al mercado de trabajo profesional.

Finalmente, la UPV/EHU podrá obtener información directa de primera mano, a través de la monitorización y el seguimiento que permita adaptar de manera continuada los contenidos docentes de la carrera de Arquitectura a las demandas, carencias ó necesidades reales que en cada momento se pueden identificar.



Gauzak horrela, eta kontuan izanda bi aldeek nahi dutela etorkizuneko tituludunak hobeto prestatuta irtetea ahalbidetuko duen lankidetzak-marko bat antolatzea, hitzarmen hau sinatu dute, ondorengo hauek direlarik

Por ende, en base a lo expuesto, siendo de interés para ambas partes articular un marco de colaboración que redunde en una mejor cualificación de los futuros titulados/as, se suscribe el presente convenio de acuerdo con lo dispuesto en las siguientes:

## KLAUSULAK

### Lehena. Praktikak antolatzea

1. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak antolatuko du, Arkitekturako Goi Eskola Teknikoaren bidez, praktiken eta jardueren programa bat, Arkitekturako ikasketen izaera kontuan hartuta. Programa horren inguruko hitzarmen partikularra sinatu aurretik, ordea, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialari (EHAEOri) igorriko zaio programa. Programa horretan datu hauek zehaztuko dira, gutxienez:

1. Helburu programatikoak
2. Praktikan aurreikusitako jarduerak
3. Ikasleak hautatzeko irizpideak
4. Ikasleei ikastegian tutoreak izendatzeko irizpideak
5. Praktikak burutzeko egutegi eta ordutegi egokienak
6. Praktikak ebaluatu eta kontrolatzeko sistemak

Arkitektoaren lanak bi alderdi ditu: gaitasun zientifiko-teknikoa batetik, eta sormen formala eta artistikoa bestetik. UPV/EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko ikasleek beren abileziak eta gaitasunak zorrotz ahal izango dituzte aipatutako alderdi edo arlo horietakoren baten, edo bietan, eta baita oinarritzko hainbat arlotan ere, hala nola, proiektuetan, hirigintzan, artearen historian, eraikuntzarako teknologietan, egituren kalkuluan eta diseinuan, instalazioetan, deontologian eta legerian, marrazketan eta CADn, eta hirigintzako eta eraikuntzako ekonomian.

Ikasleei komeni zaie bulegoetako edo kabineteetako esperientziaz gain arkitekto baten

## CLÁUSULAS

### Primera. Organización de las prácticas

1. La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, a través de la Escuela Técnica Superior de Arquitectura, establecerá un programa de prácticas y actividades en función de los estudios de Arquitectura, dándolo a conocer a los responsables del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro (COAVN) con carácter previo a la firma del convenio particular. En dicho programa se especificarán, al menos, los siguientes datos:

1. Objetivos programáticos.
2. Actividades previstas en la práctica.
3. Criterios de selección del alumnado.
4. Criterios de adscripción de alumnos a tutores en el Centro.
5. Calendario y horarios deseables para las prácticas.
6. Sistemas de evaluación y control de las prácticas.

La profesión de Arquitecto posee una doble componente, la de capacitación científico – técnica y la de creatividad formal y artística. El alumnado de la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de la UPV/EHU podrá perfilar sus propias habilidades y competencias personales en uno ó en ambos de estos dos campos de actuación profesional, y en las diversas disciplinas básicas, a saber: Proyectos; urbanística; historia del arte; tecnologías de construcción; cálculo y diseño de estructuras; instalaciones; deontología y legislación; dibujo y CAD; economía urbana y de la construcción.

Para los alumnos es deseable no solo una experiencia de gabinete o de oficina, sino



eguneroko lana ere ezagutzea, obrak bisitatzea ere joatea edo eraikuntzarekin lotutako fabrikazioko beste zerbitzu edo prozesuetan ere parte hartzea (erakusketetan, txostenak egiten, materialak eta osagaiak diseinatzeko, etxebizitzaren edo hirigintzaren inguruan aholkularitza lanak egiten eta beste hainbat lanetan).

2. Ikasturte bakoitzaren hasieran, Donostiako Arkitekturako GET-k EHAEOri igorriko dio ikasleen zerrenda; ikasle horiek indarrean dagoen arautegiaren arabera arkitekturako estudioetan borondatezko praktikak egiteko hitzarmen marko honetako baldintzak betetzen dituzte. Zerrenda hori EHAEOk eskainiko die ikasleekin hitzarmen partikularra sinatzeko interesatuta dauden arkitektoei.

Hautaketan sartzeko, ikasleek ikasketa planeko lehen ziklo osoa gainditu beharko dute batetik, eta plan horretako bigarren zikloa UPV/EHUko Arkitekturako karreran egiten aritu beharko dute bestetik. Era berean, Donostiako Arkitekturako GET-n ikasketa plan berriak ezarri direnetik, praktikak egin ditzakete titulazioa lortzeko behar diren kredituen %50 baino gehiago gainditu dutenek, baldin eta kreditu horiek ikasketa planeko lehen ziklokoak badira.

3. Otsaileko ezohiko azterketen ondoren, Donostiako Arkitekturako GET-k berriro bidaliko dio EHAEOri hitzarmen marko honen barruan dauden ikasleen zerrenda; ikasleen datuak eguneratuta bidaliko dizkio. Hitzarmen markoan jarraitzen ez duten ikasleen zerrenda ere bidaliko dio.

4. Hasiera batean, EHAEOn izena emanda dauden arkitekturako elkarteek edo estudioek ikasle bakoitzaren inskripzio orria edo hitzarmen partikularra egingo dute (I Eranskina). Hitzarmen partikular horretan azalduko da elkartearen edo estudioaren izenean erakusle lanetan arituko den pertsona fisikoa. Erakusle horrek eginkizun hauek izango ditu gutxienez:

- . Ikaslea hartzea.

también visitas ó contactos con la práctica diaria a pie de obra o en otros servicios o procesos de fabricación (exposiciones, elaboración de informes, diseño de materiales y componentes, asesoría inmobiliaria ó urbanística, y otros) vinculados al sector de la construcción.

2. Al comienzo de cada curso académico, la ETS de Arquitectura de San Sebastián remitirá al COAVN una lista de todos aquellos alumnos que cumplan los requisitos del presente Acuerdo Marco para la realización de prácticas voluntarias en Estudios de Arquitectura de acuerdo con la actual Normativa. Dicha lista será facilitada por el COAVN a los Arquitectos interesados en suscribir un convenio particular con el alumno.

Solamente serán seleccionables los/as alumnos que hayan superado íntegramente el Primer Ciclo del Plan de Estudios y se encuentren realizando el segundo ciclo de dicho Plan de la carrera de Arquitectura de la UPV/EHU. Así mismo, tras la implantación de los nuevos planes de estudio en la ETS de Arquitectura de San Sebastián podrán realizar prácticas los alumnos que hayan superado más del 50% de los créditos necesarios para obtener su titulación, siempre que dichos créditos correspondan al Primer Ciclo del Plan de estudios.

3. Después de los exámenes extraordinarios de febrero la ETS de Arquitectura de San Sebastián remitirá de nuevo al COAVN una lista actualizada de todos aquellos alumnos que se encuentran dentro del Convenio Marco y los que han dejado de pertenecer al mismo.

4. En una primera instancia, las Sociedades o Estudios de Arquitectura inscritos en el COAVN confeccionarán la hoja de inscripción ó convenio particular de cada alumno/a (Anexo I). En dicho convenio particular figurará nombrada la persona física que actuará como instructor por parte de la sociedad ó estudio de arquitectura cuyas funciones, al menos, serán las siguientes:

- . Acoger al alumno.



- . Ikaslearen zeregina antolatzea, hura arkitekturako estudioan dagoen bitartean.
- . Ikasleari arkitekturako antolakuntza eta funtzionamenduaren berri ematea (helburuak, eginkizunak, inplikazio deontologikoak...).
- . Ikasleari tokatzen zaizkion eskola praktikoak ematea, arkitekturako estudioan.
- . Ikaslearen praktikak gainbegiratzea.
- . Programan ezarritako jarduerak koordinatzea, unibertsitateko ikastegiak izendatutako irakasle/tutorearekin batera.
- . Jarraipen Batzordeari informatzea, praktikak burutzean gerta daitezkeen gorabeheren inguruan.

5. UPV/EHUK automatikoki onartuko ditu erakusleak, venia docendi eta ordainsaririk gabeko ohorezko irakasle laguntzaileen izaera, horretarako Gipuzkoako campuseko errektoreorde jaunak egingo duen izendapenaren bidez. Izendapena proposatuko diote unibertsitate zentroak eta campuseko kanpo harremanetarako zuzendariak. Era berean, horiek eskubidea izango dute unibertsitateko instalazioetara (liburutegietara, kirol instalazioetara, mintegietara...) sartzeko, beren etengabeko formazioa sendotzeko.

6. EHAEOn izena emandako arkitekturako elkartearen edo estudioaren ardura izango da, hitzarmen partikular bakoitzean, ikasleak lehen aipatutako zerrendan egotea. Arkitekturako estudioak berak, aldi berean, hitzarmen partikularra bidaliko dio Donostiako Arkitekturako GETko zuzendariari eta horren kopia bat EHAEOrara, 15 eguneko epean, hitzarmena indarrean sartzeko egunetik hasita, Donostiako Arkitekturako GETko praktiketako programaren arduradunak (PPAk) hitzarmen partikularra sinatuz.

Aipatutako epe hori errespetatuko ez balitz, ez litzateke hitzarmena sinatuko.

Hitzarmen partikularra Donostiako Arkitekturako GETra eta EHAEOrara bidaltzerakoan,

- . Organizar la actividad del alumno durante su estancia en el estudio de Arquitectura.
- . Informarle sobre la organización y el funcionamiento del estudio de Arquitectura (objetivos, funciones, implicaciones deontológicas, etc.).
- . Impartir la docencia práctica correspondiente en el Estudio de Arquitectura.
- . Supervisar sus actividades.
- . Coordinar con el Tutor designado por el centro universitario el desarrollo de las actividades establecidas en el programa.
- . Informar a la Comisión de Seguimiento, que se establece en la cláusula V de este Convenio, sobre las incidencias que pudieran ocurrir durante el desarrollo de las prácticas.

5. La UPV/EHU reconocerá a los instructores, de forma automática, la venia docendi y la consideración de profesores colaboradores honoríficos sin remuneración, mediante el correspondiente nombramiento que a tal efecto realizará el Excmo. Sr. Vicerrector del Campus, a propuesta del Centro universitario y del Director de Relaciones Externas del Campus. Así mismo tienen derecho al acceso a las instalaciones universitarias en las que puedan contribuir a su formación continuada (Bibliotecas, Deportes, Seminarios, etc.)

6. La Sociedad o Estudio de Arquitectura inscrita en el COAVN será responsable, en cada convenio particular, de que los alumnos se encuentren dentro del listado anteriormente citado. Así mismo, el propio Estudio de Arquitectura remitirá simultáneamente dicho Convenio Particular a la Dirección de la ETS de Arquitectura de San Sebastián y una copia del mismo al COAVN, antes de un plazo de 15 días de la fecha de comienzo del Convenio para que se proceda a la firma del mismo por parte del Responsable del Programa de Prácticas (RPP) de la ETS de Arquitectura de San Sebastián.

En caso de que no se cumpliera el plazo arriba reflejado no se procederá a la firma de dicho convenio.

En el momento de remitir a la ETS de Arquitectura de San Sebastián y al COAVN el



hitzarmenarekin batera bidaliko zaie laugarren klausulan aipatzen den aseguru osagarria ordaindu izanaren frogagiria batetik, eta lehenengo klausulako 11. puntuan adostutako kopurua sartu izanaren frogagiria bestetik.

7. Hitzarmen partikularra behin sinatuta, Arkitekturako GET-k EHAEOran bidaliko du hitzarmena, ikasleari izendatu zaion tutorearen, praktiketako programen arduradunaren (PPAren) eta arkitekturako estudioak izendatutako erakuslearen izenekin batera.

8. Praktiketako ordutegiak finkatzeko, kontuan hartuko dira haien ezaugarriak eta arkitekturako elkarte edo estudioek dituzten aukerak, praktikak normaltasunez burutzeko. Praktiketako ordutegiak ez die, inoiz ere, eragotziko ikasleei Unibertsitateko eskolak jarraitzea. Eta hori benetan bete dadin PPA arduratuko da.

Borondatezko praktiketarako antolatzen den ordutegiak ez dio ikasleari inoiz hartuko ikasturte akademikoko denbora guztiaren %50 baino gehiago.

9. EHAEOn izena emandako arkitekturako elkarte edo estudioek berrmatuko die ikasleei haien instalazio eta baliabideak erabiltzea, praktikak egiteko. Horiek, halaber, zehaztuko dute har dezaketen ikasle-kopurua, kontuan hartuta praktikak egiteko dituzten baliabideak eta erdietsi nahi dituzten helburuak.

Nola UPV/EHUK —kontuan hartuko ditu ikasleen curriculumak, interesa eta espediente akademikoa— hala arkitekturako elkarteek eta estudioek —ikasleak eskatzen dituzten eta EHAEOn izena emanda dauden elkarte eta estudioek— agintzen dute malgutasunez eta iritzi egokiaz erraztuko diela ikasleei borondatezko praktiketan sartzea, kasu bakoitzean hitzartzen den denboran.

10. Arkitekturako GET-k eta EHAEOK bina ordezkari izendatuko dituzte, Jarraipen Batzordean. Hitzarmen honen bosgarren klausulan aipatzen da Batzorde hori.

Convenio particular, éste se remitirá junto con el justificante de pago del Seguro Complementario que se especifica en la cláusula cuarta y el justificante de ingreso de la cantidad estipulada en el punto 11 de la primera cláusula.

7. Una vez firmado el convenio particular, la ETS de Arquitectura lo remitirá al COAVN junto con el nombre del Tutor asignado al alumno, el del Responsable del Programa en Prácticas (RPP) y el del Instructor por parte del Estudio de Arquitectura.

8. Los horarios de prácticas se establecerán de acuerdo con las características de las mismas y de las disponibilidades de cada Sociedad o Estudio de Arquitectura, para que dicha actividad se desarrolle con normalidad. Estos horarios serán, en todo caso, compatibles con la actividad lectiva desarrollada por el estudiante en la Universidad. Los RPP asegurarán el cumplimiento de este extremo.

En ningún caso el horario de dedicación a prácticas voluntarias representará para el alumno/a más del 50% del tiempo íntegro que constituye el curso académico.

9. Las Sociedades o Estudios de Arquitectura inscritos en el COAVN garantizarán la utilización de instalaciones y recursos necesarios para la realización de las prácticas y determinarán el número de alumnos que puedan atender en función de los recursos disponibles y de los objetivos perseguidos.

Tanto la UPV/EHU —basándose en el historial curricular, en el interés personal, y en el expediente académico de sus alumnos—, como las Sociedades y Estudios de Arquitectura que así lo soliciten y estén adscritos al COAVN, se comprometen a facilitar con flexibilidad y buen criterio la acogida y la inserción del alumnado en las prácticas voluntarias, durante el período estipulado en cada caso.

10. La ETS de Arquitectura así como el COAVN nombrarán a dos representantes por cada parte en la Comisión de Seguimiento que se establece en la cláusula quinta de este Convenio.



11. EHAEOn izena emanda egonik borondatezko praktikak egiteko ikasleak hartzen dituzten arkitekturako elkarte edo estudioek 30,00 € (hogeita hamar euro) ordainduko dizkie DAGET-i, hitzarmen partikular bakoitzarengatik, Donostiako Arkitekturako GET-k izendatutako tutoreen joan-etorriak ordaintzeko eta kudeaketa gastuei aurre egiteko.

Arkitekturako elkarte edo estudioek, aldiz, ez dute inolako diru-kopururik jasoko Arkitekturako GET-aren partetik, haien instalazioetan ikasleek burutzen dituzten praktikengatik.

### **Bigarrena. Praktikak ebaluatzea**

a) Ikasleen praktikak kontrolatu eta gainbegiratuko dituzte arkitekturako elkarte edo estudioak izendatutako erakusleak eta ikastegiko tutore arduradunak.

b) Arkitekturako GET-ko PPAk tutore bat izendatuko dio ikasle bakoitzari. Irakasle-tutore hori arduratuko da ikaslearen formazioaren jarraipena egiteaz, arkitekturako elkarte edo estudioak izendatutako erakuslearekin batera, eta ikaslea ebaluatzeaz.

c) Arkitekturako GET-k, EHAEOrekin adostu ondoren, praktikak jarraitzeko eta gainbegiratzeko prozedurak ezarriko ditu, tutoreari, erakusleari eta ikasleei dagokienez. Praktiken kalitatea ebaluatzeko asmoz, PPAk jasoko ditu ikasleek, tutoreek eta erakusleek dituzten iritziak, burututako praktiken inguruan.

d) Borondatezko praktiken garaia amaituta, derrigorrezkoa izango da ikasleen jarraipenari eta ebaluazioari buruzko txostenak egitea. Txostenak hiru alekoak izango dira; ale bakoitza erakusleak eta tutoreak sinatuko dute. Bi txostenak bidaliko dira jatorrizko sinadurak dituztela; bat Arkitekturako GET-rena izango da, bestea

11. Las Sociedades o Estudios de Arquitectura inscritos en el COAVN que acojan a los alumnos para la realización de prácticas voluntarias abonarán a la ETSASS la cantidad de 30,00 € (treinta euros) por cada convenio particular, con objeto de subvenir a gastos de desplazamientos de los tutores designados por la ETS de Arquitectura de San Sebastián y en concepto de gastos de gestión.

Por el contrario, la Sociedad o Estudio de Arquitectura no percibirá cantidad económica alguna de la ETS de Arquitectura en compensación por las actividades prácticas que se desarrollan en sus dependencias.

### **Segunda. Evaluación de las prácticas**

a) Los alumnos desarrollarán las prácticas bajo el control y supervisión del instructor de prácticas nombrado por la Sociedad o Estudio de Arquitectura y del Tutor responsable del Centro.

b) El RPP de la ETS de Arquitectura asignará un Tutor a cada alumno que será el responsable del seguimiento de su formación, en coordinación con el instructor nombrado por la Sociedad o Estudio de Arquitectura, y de la función evaluadora del alumno.

c) La ETS de Arquitectura establecerá de acuerdo con el COAVN unos procedimientos de seguimiento y supervisión de las prácticas, tanto en lo referente al tutor y al instructor, como en lo referente al alumnado. Con objeto de evaluar la calidad de las prácticas los RPP recogerán las valoraciones de los alumnos, tutores e instructores sobre las prácticas efectuadas.

d) Finalizado el período de prácticas voluntarias, será preceptivo emitir informes de seguimiento y evaluación del alumno/a por triplicado, que serán firmados por triplicado, uno por el instructor y otro por el tutor. Ambos informes se remitirán con firma original a la ETS de Arquitectura, al COAVN, y al propio alumno/a.



EHAEOrena eta hirugarrena ikaslearena berarena.

e) Arkitekturako Goi Eskola Teknikoak txosten bat emango dio Unibertsitatea-Enpresa Harremanetarako Errektoreordetzari, gutxienez 6 hilabetearen behin. Txostenean azalduko dizkio ikasleek egindako praktiken berri batetik, eta beharrezkotzat hartzen bada ikasleen inguruko txosten zehatza bestetik. Sei hilabete txosten honetan zehaztuko dira borondatezko praktikak egiteko hartu dituzten EHAEOren izena emandako arkitekturako elkarte edo estudioek sarreren kontura egindako gastuak.

e) La Escuela Técnica Superior de Arquitectura emitirá un informe al Vicerrectorado de Relaciones Universidad-Empresa con una periodicidad mínima de 6 meses, en el que se dará cuenta del desarrollo de las prácticas realizadas por los alumnos así como un informe pormenorizado de los mismos, si se considera necesario. En este informe semestral se dará cuenta detallada de todos los gastos realizados con cargo a los ingresos realizados por las Sociedades o Estudios de Arquitectura inscritos en el COAVN que acojan a los alumnos para la realización de prácticas voluntarias.

#### **Hirugarrena.- Arkitekturako elkarte edo estudioaren eta praktikak egiten ari den ikaslearen arteko harremanak**

#### **Tercera.- Relaciones entre Sociedad o Estudio de Arquitectura y el alumno en prácticas.**

a) Borondatezko praktiken programetan parte hartzen duten ikasleek ez dute inolako lan-harremanik edo loturarik izango Arkitekturako elkarte edo estudioekin. Beraz, ez da inolako lan-kontraturik sinatzerik izango, formazio praktikoak irauten duen bitartean.

a) Los alumnos que participan en los programas de prácticas voluntarias en ningún caso tendrán vinculación o relación laboral con la Sociedad o Estudio de Arquitectura, por lo que no se podrá formalizar contrato de trabajo alguno durante dicho período de formación práctica.

b) Ikaslearen eta Arkitekturako elkarte edo estudioaren arteko lotura ez da lanekoa. Ondorioz, ikaslea ikasketak amaitu ondoren bertako plantilan sartuko balitz, elkarte edo estudioko denborak ez lioke balioko antzinasunerako eta ezta probalditik salbuesteko ere, nola eta hitzarmenean kontraktorik bi aldeek adosten ez duten.

b) Al no ser una relación de carácter laboral la que existe entre el alumno y la Sociedad o Estudio de Arquitectura, en el caso de que al término de los estudios el alumno se incorporase a la plantilla de la misma, el tiempo de estancia en la Sociedad o Estudio de Arquitectura no se computaría a efectos de antigüedad ni le eximiría del período de prueba, a menos que en el convenio estuviera expresamente estipulado.

c) Praktikak egiten ari diren ikasleek ez dute ordainsaririk jasoko. Baina, hitzarmen partikularrean aurreikus daiteke Arkitekturako elkarteak edo estudioak ikasleari zerbait ordaintzea, bidaia edo ikasteko laguntza moduan. Nolanahi ere, bidaia edo laguntza moduan emandako dirua ez da, kontzeptuz edo kopuruz, ikaslea burutzen ari den lanari dagokion ordainsariaren antzekoa izango.

c) Los alumnos en prácticas no percibirán ningún salario por la actividad desarrollada, si bien, el convenio particular podrá prever alguna aportación al alumno por parte de la Sociedad o Estudio de Arquitectura en concepto de bolsa o ayuda al estudio. En cualquier caso, esta bolsa o ayuda no se asemejará tanto en conceptos como en cuantías a lo previsto en el sistema retributivo laboral correspondiente.



d) Praktiketako ikasleek Arkitekturako elkarte edo estudio laguntzaileko funtzionamendu-arauak errespetatu beharko dituzte, une oro. Gainera, isilpean edukiko dute praktikak burutu dituzten denboran egindako lanaren inguruan ikasi izan dezaketena.

#### **Laugarrena.- Aseguruak, istripuen aurkakoa eta erantzukizun zibilarena**

a) Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak erantzukizun zibileko poliza bat itunduta dauka, praktikak egitean ikasleek eragin ditzaketen kalteei aurre egiteko.

b) Ez Unibertsitateak, ez praktiketako ikasleak eta ezta EHAEOK ere ez dute erantzun beharrik izango praktiken programaz kanpo Arkitekturako elkarte edo estudioak izendatutako erakusleak emandako argibide edo aginduen ondorioz sor litezkeen kalteengatik

c) DAGET-k eskola-aseguruaz aparte beste aseguru osagarri bat eskatu beharko diete Arkitekturako elkarte edo estudio batean borondatezko praktikak egiten ari diren ikasleei. Hori betetzea ezinbestekoa izango da borondatezko praktikak Arkitekturako elkarte edo estudioetan egiteko. Eskola-aseguruaz aparteko aseguru osagarri hori izan daiteke UPV/EHUK itunduta daukan istripuen aurkako CUM LAUDE poliza kolektiboa edo EHAEOK edo Arkitekturako elkarte edo estudioak kontratatutako aseguru bat, betiere horrek UPV/EHUren CUM LAUDE poliza kolektiboak adina babesten badu.

d) UPV/EHUrekin hitzarmenak dituzten Europako unibertsitateetatik etorri eta Arkitekturako elkarte edo estudioetan praktikak egiten dituzten ikasleek ere CUM LAUDE polizaren antzeko babesa emango dien istripuen aurkako poliza bat itunduta eduki beharko dute.

d) Los alumnos en prácticas quedarán sometidos, en todo momento, a la norma de funcionamiento de la Sociedad o Estudio de Arquitectura colaborador. Además, deberán guardar sigilo sobre cuantas informaciones puedan conocer en relación con la actividad desarrollada durante el período de prácticas.

#### **Cuarta.- Seguros contra accidentes y responsabilidad civil.**

a) La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea tiene concertada una póliza de responsabilidad civil para cubrir los daños que los alumnos puedan ocasionar por la realización de las prácticas.

b) Ni la Universidad, ni el estudiante en prácticas, ni el COAVN serán responsables de los eventuales daños cuando se deriven de órdenes o instrucciones dadas por el instructor de la Sociedad o Estudio de Arquitectura que no figuren en el programa de actividades de las prácticas.

c) La ETSASS deberá exigir a cada alumno que realice prácticas voluntarias en una Sociedad o Estudio de Arquitectura, un seguro complementario al seguro escolar. Este requisito resultará indispensable para realizar prácticas voluntarias en Sociedades o Estudios de Arquitectura. Dicho seguro complementario al seguro escolar podrá ser la póliza colectiva de accidentes "CUM LAUDE" que la UPV-EHU tiene concertada, o un seguro contratado por el COAVN o la Sociedad o Estudio de Arquitectura que, por lo menos, tenga las mismas coberturas que la póliza "CUM LAUDE".

d) Los alumnos procedentes de universidades extranjeras que tengan convenio con la UPV/EHU y realicen sus prácticas en Sociedades o Estudios de Arquitectura, deberán tener suscrita una póliza de accidentes que tenga una cobertura mínima similar a la póliza "CUM LAUDE".



### **Bosgarrena.- Jarraipen Batzordea**

Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde horretan egongo dira Donostiako Arkitekturako GET-ko bi ordezkari eta EHAEOKo beste bi ordezkari. Batzordearen eginkizun nagusia izango da erabakitzea praktikak burutzean edo hitzarmena betetzean sor daitezkeen gorabeherak.

Batzordea urtean hiru aldiz bilduko da, gutxienez, otsailean, ekainean eta abenduan. Jarraipen Batzordeko bilerak baliagarriak izan daitezzen, lau kideetatik hiru bildu beharko dira, gutxienez. Erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira.

Koordinatzaile- eta idazkari-lanetan aritzen dena arduratuko da bilerak deitzeaz eta bileretan jorratutako gaien eta hartutako erabakien aktak jasotzeaz. Akta, bilerara bertaratutakoek onartzen eta sinatzen dutenean, bidaliko zaie Donostiako Arkitekturako GET-ko zuzendariari eta EHAEOKo dekanolehendakariari, edo hitzarmen honetarako horiek eskuordetzen dituztenei. Akta bidaltzeko hilabeteko epea egongo da, Batzordea bildu den egunetik hasita.

### **Seigarrena.- Lankidetzarako hitzarmen-marko honen iraupena**

Hitzarmen honek iraupen mugagabea izango du. Dena den, bi aldeen artean edonork denuntzia dezake hitzarmena.

Hitzarmenaren denuntzia idatziz egin beharko da. Hitzarmena denuntziatzeak, bestalde, ez du eraginik izango denuntzia egin arte egiten ari ziren praktikengan.

Eta bi aldeek, hitzarmenaren azaldutako guztiarekin ados dauden seinale, lankidetzarako

### **Quinta.- Comisión de seguimiento.**

Se establecerá una Comisión de Seguimiento formada por dos representantes de la ETS de Arquitectura de San Sebastián y otros dos miembros designados por el COAVN, cuya función principal será coordinar los procesos y resolver las incidencias que puedan plantearse en el desarrollo de las prácticas o del cumplimiento del convenio.

Dicha Comisión se reunirá como mínimo tres veces al año, en Febrero, Junio y Diciembre. En las sesiones de la Comisión de Seguimiento, se requerirá, para ser efectiva, al menos la presencia de tres de sus cuatro miembros, y regirá en la toma de decisiones el principio de mayoría simple.

La persona que actúe como coordinador-secretario, designada de entre sus cuatro miembros por años naturales prorrogables, será la encargada de convocar cada sesión y levantar acta de los temas tratados y resoluciones adoptadas, la cual una vez aprobada y firmada por los asistentes será remitida, en un plazo máximo de un mes desde la fecha de celebración de la Comisión, al Director de la ETS Arquitectura de San Sebastián y al Decano – Presidente del COAVN ó personas en quien respectivamente éstos deleguen a los efectos del presente Convenio.

### **Sexta.- Vigencia del presente Convenio Marco de colaboración.**

El convenio suscrito tendrá una vigencia indefinida, si bien podrá ser denunciado por cualquiera de las partes suscribientes.

La denuncia del convenio deberá ser escrita y no afectará a las prácticas que ya se vinieran realizando en el momento de efectuarla.

Y en prueba de conformidad de cuanto antecede, las partes intervinientes firman el presente



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala  Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro

hitzarmen hau sinatu egin dute, borondatezko praktikak egiteko, eta hitzarmenaren ale bina sinatu ere, hitzarmen-buruan adierazitako leku eta egunean.

convenio de colaboración para la realización de prácticas voluntarias, por duplicado en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

Francisco Javier Ibarondo  
Donostiako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko zuzendaria/Director de la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de San Sebastián

M<sup>a</sup> Victoria Morrás Zuazo  
Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko dekanolehendakaria/Decana-Presidenta del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro



## I. ERANSKINA

### HITZARMEN PARTIKULARRA, HEZKUNTZA-LANKIDETZAKO PROGRAMA BAT GARATZEKO, UPV/EHU-KO DONOSTIAKO ARKITEKTURAKO GOI ESKOLA TEKNIKOAREN ETA .....ARKITEKTURAKO ELKARTE EDO ESTUDIOAREN ARTEAN

..... ja./and.-k, Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian duen Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko zuzendariak, eta ..... jn./and.-k, EHAEOn izena emanda dagoen Arkitekturako elkarte edo estudioaren ordezkari legalak (NAN/IFZ:.....telefono-zenbakia:.....),

hitzarmen partikular hau sinatzen dute, kontuan hartuta hezkuntza-lankidetzarako programei buruzko ekainaren 19ko 1497/1981 ED (irailaren 9ko 1845/1994 ED-ren bidez aldatua), UPV/EHUko ikasleentzako irakaskuntza praktikoak enpresetan eta erakundeetan antolatze, koordinatze eta kudeatzeko Arautegia (Gobernu Batzarrak 2002ko apirilaren 16an onartua) eta borondatezko praktikak egiteko UPV/EHUko Donostiako Arkitekturako GET-k eta EHAEOK 2002ko abenduaren 2an sinatutako akordio-markoa.

- 1 - Programan parte hartzen duen ikaslea ..... jn./and. NAN .....  
Jaioteguna .....
- 2 - Arkitekturako elkarte edo estudioko erakuslea ..... jn./and.
- 3 - Zentroko tutorea ..... jn./and.
- 4 - Praktiketako Programaren arduraduna ..... jn./and.
- 5 - Programako helburuak  
.....
- 6 - Programako jarduerak  
.....
- 7 - Jarduera burutuko den lekua:  
.....
- 8 - Programaren iraupena, .....ko .....en .....tik .....ko .....ren .....(e)ra
- 9 - Programako ordutegia ..... ordu/eguneko.
- 10 - Ikaslearentzako diru-laguntza ..... euro/hileko.
- 11 - Ezarri nahi diren baldintza partikularrak.  
.....

Hitzarmen partikularren iraupena bat etorriko da praktiken denboraldiarekin. Gainera, ikasleak ikasle den heinean sinatzen duenez hitzarmena, hark ikasle izateari uzten badio hitzarmena ere indargabetu egingo da.

Zentroa Arkitekturako elkarte edo estudioa Ikaslea

